2026-10-23 OSTIRALA
1.767. ZENBAKIA

LASARTE-ORIAKO ALDIZKARIA
TXINTXARRI.EUS / TOKIKOM.EUS

txintxarri

KIROLA

XI. Euskararen Maratoitik, Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoira / 9-11



Dena elkarrekin aldatzeko

XI. Euskararen Maratoian piztutako sugarra egunero piztuta mantentzea da erronka, Lasarte-Oria gero eta euskaldunagoa izateko / 2-8

TXINTXARRI

Ges aseguruak

Kalitatezko zerbitzua da gure lanaren arrazoia

✓ Etxeko aseguruak
✓ Komunitateak
✓ Kotxeak
✓ Dendak
✓ Aurrezkiak
✓ Istripuak
✓ Enpresak
✓ Bizitza aseguruak
✓ Eta gehiago!



XI. EUSKARAREN MARATOIA rekin eta LASARTE-ORIA BAI! KROSA rekin bat!

29. LASARTE-ORIA BAI!!

Pablo Mutiozabal kalea, 2 - 1. solairua, 8. bulegoa Lasarte-Oria | Tel. 943-36 58 99 | 609 57 51 61 | geslasarteoria@ges.es



Euskararen Maratoiaren dinamizatzaileetako bakoitzak txupinazo bana jaurti zuen Lasarte-Oriako zerura. TXINTXARRI



Erakunde antolatzaileen ordezkariak, zinta mozten. TXINTXARRI

LARUNBAT GOIZA

Txupinazoekin piztutako sugarra ez zuen euri zaparradak itzali

Eguraldiak kontrakoa egitera bultzatzen bazuen ere, xirak eta aterkiak hartuta herritar mordoa joan zen udaletxe zaharrera zein Okendo plazara, XI. Euskararen Maratoia zortzikoteko kideekin batera hasteko.

Txintxarri

Eguraldi txarrari aurpegi ona jarri eta dozenaka herritar bertaratu ziren XI. Euskararen Maratoiaren hasiera ekitaldira, espero zitezkeenak baino dezente gehiago. Udaletxe zahar pareko kalea zein Okendo plaza bete zituzten eta zortzikoteko kideei lagundu zieten sugarra pizten.

Eguna amaitu arte iraungo zuen eguraldi txarrak egitarauko zenbait jarduera baldintzatu zituen baina ez zuen sua itzali eta 40 orduz etenik gabe euskaraz aritzeko erronkari ederki eutsi zioten oholtza gainera txandaka igo ziren guztiek. Kultura sortzaile lasarteoriatar ugarik, esaterako, manifestua aurkeztu zuten.

Topaleku nagusia Okendoko karpa izan bazen ere, inguruan ere egin zituzten zenbait jarduera, hala nola sortzaileen azoka edota Aristerrazu Txiki erromeria. Sorgin Jaiak-ek txosna ireki zuen eta Arranopola txarangakoek kalejira egin zuten. Bitartean, boluntarioek dena prestatu zuten bapo bazkaltzeko.



Dozenaka herritarrek 'Bero-bero' hasi zuten larunbat goiza. TXINTXARRI



Boluntarioak, ezinbestekoak. TXINTXARRI



Giro ona izan zen kultura sortzaileen azokan. TXINTXARRI



Haurrek zein helduek dantzatu zuten Aristerrazu Txiki erromerian. TXINTXARRI



Arranopola txaranga. TXINTXARRI



Ikastetxeetako haurrek primeran pasa zuten oholtza gainean. TXINTXARRI

LARUNBAT ARRATSALDEA

Erritmoa, musika eta kirola izan zituzten larunbat arratsalde goibela girotzeko

Euriak larunbat arratsaldea goibeldu bazuen ere, hori ez zuten antzeman karpan bildutakoek; hasieratik nabarmendutako giro ederra izan zen nagusi. Musika eta kirola izan ziren protagonistak



Haurrak, jolasean. TXINTXARRI



Herritarrak koloretako xingolak zintzilikatzen. TXINTXARRI



Herriko eragile ugarirekin batera aritu ziren pailazoak oholtzan. TXINTXARRI

Txintxarri

Arratsalde bikaina izan zen larunbatekoa. Paella janarekin tripak ondo beteta, eskulanetan aritu ziren etxeko txikienak. Ostean, musika eta dantzak izan ziren nagusi. Udal Euskaltegiko kideak, eta Muntteri AEKkoak aritu ziren lehenik oholtzan, eta horiek eta gero, Udal Musika Eskolako lagunen txanda izan zen. Kukukako dantari txikiak ere ikusi ahal izan zituzten karpan bildutakoek gero, eta emanaldi horiek amaituta, sudurgorriena hasi zen. Horiekin batera, lehenik, herriko eragileak ere aritu ziren; ondoren, berriz, 2022 eta 2026 artean jaiotako haurrei omenaldia egiteko baliatu zuten tartea pailazoek.

Hala, heriotza ere presente izan zuten. Heriotza Bizitzatik taldeko lagunen eskutik, koloretako xingolak zintzilikatzeko aukera izan zuten herritarrek Karlos Irazu eskultoreak egindako egurrezko zuhaitza batean. Hori horrela, hildakoak gogora ekarri zituzten.

Kirolariei aintzatespena

Aiora Belartieta arraunlariari eta Beñat Telleria harri jasotzaileari omenaldi xumea egin die aurtengo maratoiak. Denboraldi honetan lortutakoaz mintzatu ziren biak, eta lortutako garaikur batzuk ere erakutsi zizkieten herrikideei.

Eta afaltzen hasi aurretik, egitasmoaren antolatzaileek eta kolaboratzaileek karpa otordu horretarako prestatzen zuten bitartean, txosnagunera lekualdatu zen karpan bildutako jendetza. Bertan, DJ lanetan aritu ziren bi herritar gazteekin dibertitu ziren lasarteoriatarrak.



2022 eta 2026 urteen artean jaiotako haurrekin ere aritu ziren pailazoak. TXINTXARRI



Pirritx eta Txapas, kantuan. TXINTXARRI



Herriko haurrek ere ederki egin kantatu eta dantzatu zuten. TXINTXARRI



Belartieta eta Telleria. TXINTXARRI



Afalaurretik DJ saio animatuan parte hartu zuten herritar askok. TXINTXARRI

LARUNBAT GAUA

Apartekoa izan zen aurreneko gaua

Lasarte-Oriako palmondoa zein espezietakoa zen ezagutu zuten herritarrek: kanariarra. Misterioa argitzeak eragindako lasaitasuna baliatu eta aldakak askatu zituzten ondoren etorri zen guztiaz gozatzeko. Parranda igande goizaldera arte luzatu zuten zenbaitek

Txintxarri

Ekitaldiz eta alaitasunez beterikoa izan zen XI. Euskararen Maratoiko larunbateko gaua. Afari goxo-goxoarekin ekin zioten karpan bildu ziren ehunka lasarteoriatarrek. Jakiak dastatzearekin batera, herriko palmondoaren espeziea jakin zuten: kanariar palmondoa. Ondotik etorri zen Erketz EDT, Zero Sette eta Alboka Abesbatzak elkarrekin eskainitako emanaldia. Kantuz, dantzaz eta akordeoiez onduta, ikusgarria izan zen. Lasarte-Oriako danborradako zenbait kidek ere parte hartu zuten *Mandioko Polka* interpretatzeko.

Jarraian, Piztu! TB showak girotu zuen XI. Euskararen Maratoiko karpa. Orotariko aktuazioak egin zituzten: euskaratutako kantuak edota Maruxak taldearen remixa, beste batzuen artean. Gainerakoan, euskal telebistetako programen bertsioak eginik, gogotik gozatu zuten karpakideek. Tarteka, zutik jarri eta zortzikotearekin batera dantzatzera eta abestera animatu ziren,



Jakoba Palmondo. TXINTXARRI

baita jokoetan parte hartzera ere. Duela lau urteko edizioan famatu egin zen DJ Armin ere oholtzaratu zen eta harrera beroa egin zioten lasarteoriatarrek.

Topaleku nagusia hustu zuten segidan, afariko tresnak jaso zitzaten boluntarioek. Elektropottotte txarangako kideak arduratu ziren herritarrak erdigunean barrena eramateaz, emanaldi hunkigarria egin bitartean: zenbait kideren azkena izan zela iragarri zuten.

Karpara itzuli zirenean musika emanaldi ugariz gozatu zuten herritarrek, hala nola The Noise Makers zein Kinada taldeen kontzertuez, bertsio gauaz eta baita hamar urteren ostean berreskuratutako karaokeaz ere. DJ Malak-IAS ere aritu zen eta zenbaitek igande goizaldera arte luzatu zuten parranda.



Gauerako arropa aproposa jantzi zuten zortzikoteko kideek. TXINTXARRI



Dantzarako eta disfrutatzeko gogoa erakutsi zituzten herritarrek. TXINTXARRI



Danbor jotzaileak. TXINTXARRI



Alboka, Erketz eta Zero Sette taldearen emanaldia ikusgarria izan zen. TXINTXARRI



Piztu TB ikuskizuna egin zuten afalostean. Aktuazio ugari erakutsi zituzten oholtza gainean. TXINTXARRI





Emanaldi hunkigarria izan zen Elektropottotte taldeko kideentzat. TXINTXARRI



Goiztiarrenentzako baratxuri zopa prestatu zuten Intza elkarteko hiru kidek. TXINTXARRI



Hausnarketak partekatzeko tartea izan zen Esnatu! Kafe-Tertulia. TXINTXARRI



Sketxaren une bat. TXINTXARRI

IGANDE GOIZA

Lehen 24 orduak igarota, hausnarketarako tartea izan zuten igande goizean

Gosari ederra eginda ekin zioten igande goizari lasarteoriatarrek. Udazken giroari goxotasuna emateko, baratxuri zopa ederra dastatu zuten goiztiarrenek. Mimo handiarekin kozinatu zuten hiru herritarrek



Bizipozaren azoka. TXINTXARRI



Erraldoiak karpan, dantzan. TXINTXARRI

Txintxarri

Esnatu! Kafe Tertulia aurrera eraman zuten antolatzaileek. Umore esketx batek eman zion hasiera jarduerari, eta ondoren hori egitearen arrazoiak zeintzuk ziren azaldu zituzten. Ostean, bertan ariko ziren eragileak aurkeztu zituzten: Xumela Korua, Zabaleta Auzolan, AEK eta EAGI heziketa eskola. Horiekin batera, norbanakoak ere batu ziren.

Talde solasaldiak amaituta, Bizipoza elkarteak azoka aurrera eraman zuen. Kale Nagusian izan zen hori, eta, beraz, bertara lekualdatu ziren karpan bildutako herritarrak.

Bien bitartean, Xumela koruko lagunak ere bertan aritu ziren kantuan. Askotariko abestiak kantatu zituzten, oraingoan, gainera, partaide berri batek lagunduta; Serilok Djembea jo zuen Txapasek akordeoia jo bitartean.

LOZET elkarteko lagunek ere buruhandi eta erraldoiekin dantzan aritu ziren Kale Nagusian, eta arratsaldeko jarduerei ekin aurretik, bazkari ederra egin zuten herritarrek.



Gonbidatu bereziak ondoan kantatu zuten Xumela koruko lagunek. TXINTXARRI



Herritarrak, barrikotean. TXINTXARRI



IGANDE ARRATSALDEA

Euskararen Maratoiak ez zuen etenik izan igande arratsaldean ere. Ederra gozamena

Bertsoak, musika, dantza, aitortza, jaia...denetarik izan zuen maratoiaren igande arratsaldeak. Une animatu bezain hunkigarriak bizitzeko abagunea izan zuten egitasmoan bildutakoek



Argazkioinaxxx. ARGAZKIJABEAXXX



Oaintze in deu! txarangaren emanaldiarekin ederki pasa zuten karpan bildutakoek. TXINTXARRI

Txintxarri

Bertso saio bereziak eman zion arratsaldeari hasiera. Earra Bertso eskolako gazteek eta zortzikoteak egin zuten bertsotan. Hizki batekin hasten zen hitzak asmatu eta oin bezala erabili, galdera erantzun edo bi oinekin lan egin behar izan zuten guztiek eta kopla ederrak egin zituzten.

Oiantxe in deu! txarangako kideek kalean ez ezik, oholtzan ere trebeak direla erakutsi zuten eta sei abestien bidez kantuan eta dantzan jarri zuten karpa. Hala nola, Zetak-en *Itzulera* edo ETSren *Aukera berriak*.

Bizipozako lagunek hartu zuten oholtza segidan. Aspanogi, Inurri, Naizen, Ostadar Inklusioa, Bizilagun, Kumme, Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria... erakundeak biltzen dituen lagunek euren lana erakutsi zuten oholtza gainean. Dantza eta musika ere ez ziren falta izan.

Landaberri ikastolako sortzaile eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxean euskararen alde borrokatu zuten gurasoei aitortza ere egin zieten. Belaunaldi horietako guraso, irakasle eta ikasleak batu ziren oholtzan eta gaur egungo gazteen izenean zortzikoteko Malakek hitz egin zuen. Joseba Tapiaren laguntza izan zuren eta haren ahotsak Palestina ekarri zuen gogora.

Dantzan jarri zuten gero plaza Maider Oiartzabal eta Dabid Egizabalek. Plaza dantza eta musikoekin ederki moldatzen direla erakutsi zuten zortzikoteko kide zein herritarrek.

Azkenik Samba badago taldearen hiru doinuz gozatu ahal izan zuten ikusleek.


Emanaldi ikusgarria egin zuten Bizipoza osatzen duten elkarteek. TXINTXARRI


Leire Elizegi, hizketan. TXINTXARRI



Samba Badago taldearen emanaldiaz ere gozatu zuten. TXINTXARRI


Plaza dantza. TXINTXARRI


Herriko hezkuntzan euskararen alde aritu zirenen omenaldia. TXINTXARRI



Kafe-tertuliaren ondorioak. TXINTXARRI



Aire Eire taldeak girotu zuen igandeko afaria. TXINTXARRI



Jatera eseri aurretik otorduroko erritua bete zuten herritarrek. TXINTXARRI

IGANDE GAUA

Asteburu zirraragarria amaituta, eguneroko maratoia hasi dute

Oholtza gaineko markagailuan 40 zenbakia jarri arteko azken orduak zirraragarriak eta emozioz beteak izan ziren. Azken hitzartzeetan, zortzikoteko kideek herri euskaldunago baten alde lan egitearen garrantzia aldarrikatu zuten Okendo plaza lotu zuen soka-dantza ere.


Ondoren, Agus Mujikak irudimen mugaezina duela erakutsi zuen eta Anje Duhalde zein Benito Lertxundi imitatu zituen, ostean DJ Armin bihurtu eta Okendo hankaz gora jartzeko. Estasi une horien ostean erritmoa jaitsi eta zortzikoteko kideek bihotzetik hitz egin zuten. 40 orduotan bizitakoagatik eskerrak eman eta oraingo erronkan jarri zuten fokua: herri euskaldunago baten alde lan egitea. Hori da eguneroko maratoia.



Kukuka eskolako dantzariek emanaldi bikaina egin zuten. TXINTXARRI

Txintxarri

Bihotzera iristen den horietakoa izan zen XI. Euskararen Maratoiaren amaiera. Afaltzera eseri eta Aire Eire taldearen doinupean bete zituzten sabelak. Digestioa egiteko makina bat aldiz altxarazi zituzten afaltiarrak zortzikoteko kideek: *Piztu*, *Bero-bero*... dantzatu zituzten. Eta horixe bera izan zen Kukukako ikasleek ongien egiten dakiten gauzetako bat, dantza: 25. urteurreneko egitaraua aurkeztu eta zenbait taldek emanaldiak egin zituzten, baita beteta zegoen





Artista polifazetikoa dela erakutsi du Agus Mujikak beste behin. Behin baino gehiagotan jarri du dantzan plaza osoa. TXINTXARRI



XI. Euskararen Maratoiko azkeneko talde argazkia. TXINTXARRI



40. ordu aldaketa. TXINTXARRI



Emozioz beterikoak izan ziren zortzikoteko kideen azken hitzartzeak. TXINTXARRI



Gure herriko euskararen historiaren zati bat berriz bizitzeko aukera duzue. TXINTXARRI ETA LASARTE-ORIAKO UDALAREN ARTXIBOA

AZAROAREN 8RA ARTE

'40 urte, 11 galdera': Euskararen Maratoiaren historia ezagutzeko lehiaketa

Galdera lehiaketa jarri dugu martxan 'txintxarri.eus' atari digitalean

Txintxarri

XI. Euskararen Maratoia amaitu da, baina euskararen sugarra piztuta mantentzeko aukerak ez dira agortu. Aurten 40 urte bete dira lehen Euskararen Maratoia ospatu zenetik, eta urteurren berezi hau ospatzeko, *40 urte, 11 galdera* lehiaketa martxan jarri dugu *txintxarri.eus* atari digitalean. Azaroaren 8a izango da parte hartzeko azken eguna, igandea.

Helburua orain arteko 11 edizioetako oroitzapenak berreskuratzea, belaunaldiak elkartzea eta Lasarte-Oriako euskararen historiaren zati bat berriz bizitzea da. Horretarako, 11 galdera prestatu ditugu, maratoiaren edizio bakoitzari buruzko bana. Garai bateko leloak, protagonistak, ikurrak eta une bereziak gogoratzeko aukera izango dute parte hartzaileek.

Ez dago presarik erantzuteko! TXINTXARRI-ren *Maratoiteka* atalean eta Euskararen Maratoiaren YouTube-ko kanalean dauden bideo historikoetan aurki ditzakezue erantzunak. Beraz, ikertu, iraganeko irudiak ikusi eta erantzun guztiak ondo pentsatzera gonbidatzen zaituztegu. Bi sari banatuko ditugu: batetik, 11 galderak zuzen erantzuten dituzuenon artean Euskal Herriko landetxe batean egonaldia zozkatuko dugu, bi gauekoa, bi pertsonarentzat (gosari eta afari bana barne); eta bestetik, azaroaren 8ra arte parte hartzen duzuen guztion artean sari berbera emango dugu, lehenaren irabazlea kanpo utzita.

Ekimen hori LABORAL Kutxaren babesari esker gauzatuko da. TXINTXARRI-k eskerrak ematen dizkio euskararen, herritarren parte hartzearen eta tokiko komunitatearen aldeko proiektu horrekin bat egiteagatik.

Hortaz, Euskararen Maratoiaren historia berriz bizitzeko eta sari ederra eskuratzeko aukera duzue. Prest al zaudete 40 urteko historia 11 galderatan laburbiltzeko?

11 galderak


- Zein izan zen aurreneko edizioaren leloa?
- Zein datatan ospatu zen bigarren aldia?
- Nor ez zen izan III. edizioko zortzikoteko kide?
- Zenbat urte zituen garai hartan (IV. maratoian) zortzikote kide Agus Mujikak?
- Nork moztu zuen V. edizioko hasierako zinta?
- Zein abeslari famaturen abestia oholtzaratu zuen zortzikoteko kide David Egizabalek?
- Zein izan zen 2008. urteko ikur nagusia?
- Zein mendiren izena berreskuratu zen eta buzoia jarri zen bertan, VIII. edizioan?
- Zein izan zen 2016ko maratoian aurrera eraman zen ariketa linguistikoaren ikurra?
- Hiru fase izan genituen 2022an. Zeintzuk?
- Zortzikoteko kideetatik nortzuk izan dira berriak aurten?

Gogoratu: erantzunak TXINTXARRI-ren Maratoitekan eta Lasarte-Oriako Udaleko YouTube kanaleko Euskararen Maratoiko bideoetan aurki ditzakezue.



Lasarte-Oria Bai! I. Kros Herrikoia IV. Euskararen Maratoian lehiatu zenekoa

Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoiko 29. edizioak Euskararen Maratoiari aitortza egin nahi izan dio; zortzikoteak 1 dortsala jantziko du hilaren 25ean. Hori baliatuz denboran atzera egingo dugu eta lehen krosa gogora ekarriko dugu



IV. Euskararen Maratoia Urriaren 26a, larunbata

8:00 • Maratoiaren hasiera:
• Orioko Sorgindantza Okendon.
• Lasarte-Eberest probaren hasiera.

9:00 • Pintatxoiaren hasiera.
• Txokolate-jana denontzat.

10:00 • Haurren emanaldiak: abestiak, txisteak, ipuin-kontalariak, dantzak...

13:00 • Haurrentzako tailerrak Kuku-Mikuren eskutik: indioz mozorrotu.

14:00 •Zortzikotearen bazkaria.
•Haurrentzako indio bazkaria.

15:00 •Haurrentzako jolasak eta tailerrak.

15:30 laguntzaz. •Jon Braunekin batera indioen irteera txarangaren

• Haurren pilota-partiduak.

17:00 •Takolo, Pirritx eta Porrotxen emanaldia.

18:00 • Haurren dantza-saloa eta erromeria.

18:45 • "Gazte-mobida":
- Kirol-froga
- "Euskal moda lehen, orain eta gero"
- Animatzaileak.
- Euskarazkoa.

20:40 • "Harri eta urri" dlaporama, herriari begirada bat.

21:00 • AFARI HERRIKOIA Okendon.

3:00 • Rock kontzertua.

4:00 • Baserrietako ibilalditxoa.

6:00 • Gaueko langileekin elkarrizketa.

7:30 • Gautxorientzako gosaria

8:00 • Diana txistulariekin eta Alboka abesbatzarekin.

9:00 • Zahar egoitzakoen gimnasia.

10:00-14:00 • Haurrentzako tailerrak.
• Herriko artisauen azoka.

10:00 • Herri Krosa.

10:15 • Trikitilariak.
11:30 • Pilota-partiduak.
12:00 • Gizon-proba.
12:15 • Basarrien arteko herri-kirol desafioa.
13:10 • Euskal dantzen saioa.
13:40 • Bertsolariak.
• Irrintzi-erakustaldia.
14:30 • Zortzikotearen bazkaria.
15:30 • Mus-txapelketa eta beste karta-jokuak. Xake-partidak.
16:00 • Musika Eskolakoen emanaldiak.
16:30 • Alboka Txikiren ermanaldia.
16:45 • Txakurren erakustaldia frontoian.
17:15 • Ile apaingeta-saioak.
17:30 • Landaberriko dantzari txikien saioa.
18:10 • Herriko "Astuak" txarangaren bataioa.
18:25 • Trikitin exhibizioa.
18:40 • Euskarazko jokak.
18:50 • Areto-dantzen saioa.
19:20 • Ingurutxoa.

IV. Euskararen Maratoiko egitaraua. Eskuineko orrian, 10:00etan, herri krosa agertzen da. TXINTXARRI



Hamar kilometro gogoz korrika!

Aitor Azkonobieta

Eguraldi bikaina, giro aproposa, kaleak jendez beterik... Hamarrak inguru ziren eta guztia prest zegoen Ostadar Kirol Fundazioak antolaturiko "Lasarte-Oria Bai" Lehen Kros Herrikoiari hasiera emateko. Irteerako pankartaren atzean 684 korrikalari lasterketa noiz hasiko zain zeuden.

Lehenengo metroetatik argi eta garbi ikusi ahal izan genuen korrikalarien helburuak desberdinak zirela: batzuek Behobia-Donostia Klasika zeukaten gogoan, beste askok, ordea, "Euskararen IV. Maratoia" zela eta, euskararen alde izerdi pixka bat botatzeko aitzakia aproposa zuten. Azken multzo bat geratzen da oraindik; "gaupasaz korrituko diat" erronka bere buruari bota eta atzera egin ez zutenak. Hauek ezagutzeko aurpegietara edo kalimotxoz zipriztindutako nikiari begiratzea besterik ez zegoen.

Bakoitzaren intentzioak alde batera utzita, korrikalari mordoska gerturatu zen guregana. Antolatzaileek ere ez zuten horrelakorik espero, "bostehun pertsona inguru espero genituen, azkenean gehiago izan direnez, arazo txiki batzuk izan ditugu, baina urteak aurrera joan ahala antolakuntza gero eta hobea izango da".

Mikel Alkortak irabazi zuen krosa 35 minutu eta 15 segundurekin.

Sail bakoitzeko lehenengo lasarte-oriarrek ere sariak jaso zituzten.

"Kaxkarro alua!"

Korrikalariak seiehunetik gora baldin baziren ere, antolatzaileen lana ezin da alde batera utzi. Ostadarreko kideez gain, herriko udaltzainek, DYA k eta herriko irratizaletuek lan handia egin zuten krosa aurrera ateratzeko. Ibilbidea prestatzeko ere makina bat buelta eman zituzten herria goitik behera behin baino gehiagotan zeharkatuz.

Ziur nago, korrikalari askok eta asko Kaxkarroko malda ikusi zutenean, antolatzaileen lanaz oroituko zirela eta baten bat baita antolatzaileen familian ere. Lasarte-oriarren burutik, berriz, "Kaxkarro alua" esaldia behin baino gehiagotan pasako zen. Izan ere, bukaera aldean horrelako malda bat jartzeak ez die mesederik egiten korrikalari "gaixoen" osasunari.

Mikel Alkorta zarauztarraren hankek, ordea, ez zuten aldaparik somatu ere egin, ziztu bizian pasa baitzen bertatik. Zirudienez, nonbait entzun omen zuen Okendon "Euskararen IV. Maratoia" ospatzen ari ginela eta berak ere, ez zuen euskararen aldeko festa erraldoia galdu. ❍

MATE KIROLAK Kale Nagusia,36 - ☎ 36 45 96 LASARTE-ORIA

MAVIR MASAJE-ZENTRUA TRATAMENDUAK Buruko eta bizkarreko minak, ziatika, lumbagoa, hertigoa, urdaritasuna, bihardunak, zerbikalak, haunsurak, zirkulazioa, korrontea. Ciumendi, 7 -1.B USURBIL ☎ 37 26 58

yoga ESTRESA ANTSIETATEA URDAIRITASUNA JARRERA BAIKORRA ARNASKETA-ARIKETAK GARAPEN PERTSONALA AUTOKONTZIENTZIAZIOA ERLAJAZIO FISIKO ETA PSIKIKOAK "Gizakiak baloreak" yoga taldea 13 41 76 ☎ 40 01 66 14 34 47 Goikale, 19

NISSAN EBRO IZARRA TAILERRA Tel.: 36 23 57 LASARTE-ORIA

Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoieko lehen kronika. TXINTXARRI

Txintxarri

Lasarte-Oria Bai Kros Herrikoia Euskararen Maratoiarekin sortu zen, 1996an. Imanol Bardaji, Gabi Valin, Joxean Alberdi eta Roberto Rebe. Herri krosetan korrika aritzen ziren lasarteoriatar talde batek hauspotuta sortu zen lasterketa. Hiru urte luze behar izan zituzten guztia prest izateko; Ostadarrekin jarri ziren harremanetan ideia aurrera eramateko eta euren asmoa ederki bete dute, gure herrian kirol hitzordu garrantzitsua izatea.

40 orduz gogoz! leloa zuen egitarauaren barruan jokatu zen lehenengo edizio hura urriaren 27an, goizeko hamarretan.

Biyak Bat zahar egoitzekoen gimnastika, haurrentzako tailerrak, herriko artisauen azoka, pilota partidak, gizon probak eta baserrien arteko herri kirol desafioa... goiz hartako egitarauan kirol ekimen ugari izan ziren.

684 korrikalari

Antolatzaileek 500 bat parte hartzaile espero zituzten lehen edizio horretan, baina lasterketak harrera ona izan zuen korrikalarien artean eta 684 kirolari izan ziren irteera puntuan. Horrela dio 1996ko azaroaren 8an TXINTXARRIK argitaraturako kronika: "Eguraldi, bikaina, giro aproposa, kaleak jendez beterik... Hamarrak inguru ziren eta guztia prest zegoen Ostadar Kirol Fundazioak antolaturiko "Lasarte-Oria" Bai Lehen Kros Herrikoiari hasiera emateko. Irteerako pankartaren atzean 684 korrikalari zeuden".

Eguneko kontaketan, krosa kirolari askorentzat "euskararen alde izerdi pixka bat botatzeko aitzakia aproposa zela" nabarmentzen da.

Antolakuntzako lanen eta ibilbidearen gainean ere jarduten da artikulua. Izan ere, 10 kilometroko ibilbidean herriko auzo guztiak zeharkatzeko hautua egin zuten eta amaieran Kaxkarroko malda igo behar zuten; zehazki hau dio, azken honi buruz: "Ziur nago, korrikalari askok eta asko Kaxkarroko malda ikusi zutenean antolatzaileen lanaz oroituko zirela eta baten bat antolatzaileen familiarengan ere".


Lehen edizio hura Mikel Alkorta zarauztarrak irabazi zuen. Ziztu bizian egin zuen ibilbidea, 35 minutu eta 15 segundo behar izan zituen Okendo plazako helmugara iristeko eta horrela arrazoitu zuen orduko kontakizunak: "Zirudienez, nonbait entzun omen zuen Okendon Euskararen IV. Maratoia ospatzen ari ginela eta berak ere, ez zuen euskararen aldeko festa erraldoia galdu".





Laguntzaileak: DYA, Jalgune, Kukuka, Buruntzazpi, Zubietako Herri Batzarra, Ttakun, Sasoeta-Zumaburu ikastetxea, Landaberri ikastola, Or





BIKAIN

Udalerriko kaleak korrikalariz beteko dira Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia eta Kros Festarekin

10:30ak aldera hasiko da lasterketa nagusia; haur eta gazteek eguerdian hartuko dituzte kaleak

Txintxarri


Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoiaren atarian gaude. Hilaren 24tik 25era neguko ordutegira aldaketa egin ostean, azken egun horretan Geltoki Kaletik aterako da, 10:30ean, 29. edizioa.

Aurretik Lasarte-Oriako erdiguneko kaleak azken beroketak egiten dituzten korrikalariez eta ipar martxalariez beteko dira. Guztiek prest egon nahiko dute irteera momentuan eta bakoitzak bere lekua hartuko du.

Pistolak tiroa jo bezain pronto, korrikalariek euren helburua betetzeko erritmoa hartuko dute; minutu batzuk geroago aterako dira ipar martxako kideak.

Modalitate bakoitzeko kideek luzera ezberdineko bidea egin beharko du. Lasterkariek Lasarte-Oria zeharkatu eta Zubietan barrena Okendo plazan amaitzen den hamar kilometroko ibilbidea izango dute aurretik. Ipar martxako kirolariek, aldiz, bostekoa; horiek ez dira Zubietara joaten. Ikus aurreko orrialdeko mapa.

Guztiak helmugara iritsi eta sari banaketa egingo da Okendo plazan. Irabazleek txapela eta lore sorta jasoko dute. Garaikurrik ez da izango, ordea; Aterpeako dendetan erabiltzeko 1.200 eurotako balioa duten erosketa txartelak banatuko dira.



BIKAIN

700 bat haur

Hori amaitu eta krosaren harrobia den Korrika Festaren txanda izango da. 2011. urtetik 2021.era jaiotako haur eta gazteak —700 bat espero ditu antolakuntzak— hartuko dituzte Geltoki kaleko inguruak.

Adinaren arabera, ehun metrotatik 1.200 metrotara doazen saioak egingo dituzte eta parte hartzaileak kontuan izanik, multzo bakoitzeko lasterketa ezberdinak izango dira. Ikus orduak, taldeak eta ibilbideak irudian.

Korrikalari gazteek helmuga zeharkatu ostean, Jalgune elkarteko kideek banatutako opariak jasoko dituzte.

Dortsalak eta izena ematea


Krosean edo Kros Festan oraindik izena eman ez duten korrikalari edo martxalariek ere, aukera izango dute hurrengo egunetan.

Gaur, hilaren 23an (ostirala), 17:00etatik 19:30era Mercero guneko erakusketa gelan eskuratu ahalko dira dortsalak. Lasterketa bezperan, aldiz, Michelin kirol gunean, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:30era eta lasterketa egunean, 09:00etatik 10:00etara.

Prezioei dagokienez, Lasarte-Oria Bai! Kros herrikoiko dortsalak 10 euro balio du Ostadareko bazkideentzat, eta, 15 euro, gainerako kirolari guztientzat. Lasterketa egunean izen ematen duenak, aldiz, 23 euro ordainduko ditu. Kros Festaren dortsalaren kasuan, 7 euro balio ditu.

Berrikuntza modura, aurten aplikazio berria izango da korrikalarien eta ikusleen eskura. Horren bitartez, ibilbidean zehar zein puntutan dauden partekatu ahal izango dute lasterkariek euren senide eta lagunekin, non animatu jakin ahal izateko.





Manuel Lekuona Kultur Etxe atarian eman du Kukukak urteurrena ospatzeko dituen asmoen berri. TXINTXARRI

KULTURA

Gregoriaren bakarrizketak abiatu du Kukuka eskolaren 25. urteurrena

25 urteko ibilbidea urratu du Kukukak eta ospatzeko zein asmo duten iragarri dute

Txintxarri

Manuel Lekuona Kultur Etxean elkartu dira antzerki eta dantza eskolako lagunak, eta ospakizun jarduerak xehetasunez azaldu aurretik, eskolaren gainean solastatu dira.

Oroitarazi dute, adibidez, euskara eta euskal kultura ardatz hartuta, "euskararen erabilera sustatzeko" sortu zela eskola: "Hasieratik izan du helburu euskara bizitzeko, erabiltzeko eta partekatzeko espazioak sortzea". Kukuka, ordea, hori baino askoz gehiago ere badela gaineratu dute hizlariek: "Antzerkiaren eta dantzaren bidez, adierazteko, sortzeko, esperimentatzeko eta elkarrekin ikasteko gunea da. Gorputzaren bidez komunikatzeko, emozioak lantzeko, norberaren sormena garatzeko eta besteekin harremanak eraikitzeko espazioa da".

Ideia horri lotuta, eta 25.urteurrena ospatzeko helburuarekin, ikasturte hau berezia izatea nahi du eragileak eta horretarako herritar guztiek parte hartzeko askotariko jarduerak antolatu dituzte; hala adierazi dute ordezkariek: "Urritik ekainera bitarte hilabetero proposamen bat, batzuetan bi, izango ditugu, antzerkiarekin, dantzarekin eta euskal kulturarekin lotura dutenak".

Hori horrela, hitzordu sorta hori antolatzeko beharrezkoak izan diren alderdiak ere azpimarratu dituzte. Lasarte-Oriako Udalaren parte hartzea aipatu dute, eta, nola ez, baita Kukuka osatzen duen lan taldea ere. Azken horren harira, honako adierazpenak egin dituzte: "Urte guztian boluntarioki lanean dabiltzan horiek gabe ezin izango genituzke eskola eta horrek egiten dituen ekimenak aurrera eraman".

Hilaren 22ko deialdia

Agerraldiak aurrera egin ahala, atzo aurrera eraman zuten jardueraz mintzatu ziren. Bea Egizabalek gorpuzten duen Gregoriak bakarrizketa eskaini zuen Manuel Lekuona Kultur Etxean, 19:00etan.

Aurrerantzean aurrera eramango dituzten jarduerak datozen egunetan iragarriko dituzte

Gainerako hilabeteetan egingo dituztenak, ordea, datozen egunetan iragarriko dituztela ohartarazi dute eragileko kideek.

Amaitzeko, 25 urte hauetako bidea posible egin duten pertsona guztiak eskertu dituzte, hots, ikasleak, familiak, irakasleak, kolaboratzaileak eta Kukukaren inguruan "modu batera edo bestera" aritu diren pertsona guztiak: "Zuen parte hartzerik, konfiantzarik eta babesik gabe, ez litzateke posible izango gaur hemen egotea".

Azkenik, nabarmendu dute 25 urte beteta, aurrera begira jarraitzen dutela, "ilusioz eta gogoz", eta aurrerantzeko asmoak ere mahaigaineratu dituzte: "Euskarari, kulturari, sormenari eta arte eszenikoei tokia egiten jarraitu nahi dugu, belaunaldi berriekin eta gure komunitatearekin batera. Gure nahia da Kukukak sortzeko, ikasteko, adierazteko eta elkarrekin hazteko gune izaten jarraitzea, urte askoan".

Hori guztia esanda, herritarrei gonbidapena luzatu diete urteurreneko deialdiean parte hartzera, urtemuga eurekin ospatzera eta Kukukaren parte izatera.

NEURE KABUZ

Udalari: nazkatuta nago



MAITANE REBE
KOLABORATZAILEA

Lehenik eta behin, argi utzi nahi dut testu hau nire izenean idatzita dagoela, eta ez aurretik aipatutako pertsona edo elkarteen izenean.

Lasarteoriatarra naiz, eta harro nago gure herriaz, gure kulturaz, gure tradizioez eta, batez ere, herriaren alde lan egiten duten pertsonez. Urte luzez hainbat elkarte, talde eta eragiletan parte hartu dut, betiere herri bizi eta aktibo honi nire ekarpena egiteko asmoz. Lan horren atzean orduak, ilusioa, ahalegina eta konpromisoa daude, askotan norberaren denbora libreari uko eginez eta trukean ezer eskatu gabe. Herria maite dugulako egiten dugu, gure kultura eta tradizioak bizirik mantendu eta datozen belaunaldiei transmititu nahi dizkiegulako.

Baina herri aktibo bat ez da berez sortzen. Herritar askoren lanari eta borondateari esker eraikitzen da. Horregatik, gero eta zailagoa egiten zait Lasarte-Oriako Udalaren jarrera ulertzea.

Duela hiru urte ere idatzi nuen udalaren jokabideaz, haserre eta nekatuta. Hiru urte geroago, egoerak hobetu beharrean okerrera egin duela sentitzen dut. Aurten, gure jarduerak garatzeko, elkartzeko eta proiektuak aurrera eramateko erabiltzen genituen espazioetatik kanporatu gaituzte. Erabaki horrek gure lana zailtzen du eta urteetan eraikitako proiektuei eragiten die.

"Udalaren egitekoa ez da herritarren ekimenak oztopatzea, beharrak entzun eta erantzutea baizik"

Espazioak ez dira lau horma eta giltza bat soilik. Harremanak, ilusioak, proiektuak eta komunitatea sortzen diren lekuak dira. Horietan lantzen eta transmititzen dira gure kultura eta ohiturak. Horregatik, espazio horiek erabiltzea ez da pribilegio bat, herriaren alde lan egiten duten taldeentzat beharrezkoa den baliabidea baizik.

Nazkatuta nago udalaren jarreraz, ardura faltaz eta herriaren alde lan egiteko gogoz ari garenok behin eta berriro oztopoekin topo egin behar izateaz. Nekagarria da elkarlana bilatu beharrean ateak ixten direla sentitzea, eta gauzak erraztu beharko lituzkeen erakundearekin harremanak izatea bera ere zama bihurtzea.

Ez dut eskatzen araurik edo desadostasunik ez egotea. Ulertzen dut erakunde publikoek erabakiak eta prozedurak bete behar dituztela. Baina horrek ez du esan nahi herritarrei eta elkarteei bizkarra eman behar zaienik, azalpenik eman gabe jokatu daitekeenik edo urteetan egindako lana kontuan hartu behar ez denik.

Gutxienekoa errespetua da: entzutea, azalpenak ematea eta irtenbideak bilatzeko prest egotea. Udalaren egitekoa ez da herritarren ekimenak oztopatzea, haien beharrak entzun eta erantzutea baizik.

Horregatik, Udalari hausnarketa serioa egiteko eskatzen diot, herritarrekin eta elkarteekin duen harremana berrikusteko. Zer-nolako herria eraiki nahi dugu? Zer leku ematen diegu kulturari, tradizioei eta herritarren ekimenei? Eta zer babes eskaintzen diegu herria bizirik mantentzen dutenei?

Lasarte-Oria maite dudalako idazten dut, nire herriaz arduratzen naizelako. Eta, hain zuzen ere, horregatik, ez naiz isilik geratuko.

Maitane Rebek idatzitako iritzi artikulua osorik irakurtzeko eskanea ezazue QR kode hau

AUTOMOBILISMOA

Aitor Mansok Euskadiko txapelketa irabazi du Urrakira igoera proban

Sailkapen orokorrean bigarren izan da eta 9. kategorian, aldiz, garailea

Txintxarri

Urrakira igoerak Mendi igoeren Euskadiko txapelketari amaiera eman zion, Azpeitian, hilaren 18an. 70 bat ibilgailu zeuden izena emanda proban eta horietako bat Aitor Manso herritarra izan zen. Joseba Iraola bizkaitarrak irabazi arren, Lasarte-Oriako gidaria podiumera igo zen sailkapen orokorrean zein 9. kategorian eta horri esker, Euskadiko txapeldun da berriro.

Aurkari gogorra zuen Mansok Urrakira igoeran, Joseba Iraola eta bere NP01a. Denboraldi osoan zehar, Iraolak bere nagusitasuna erakutsi du eta oraingoan ere garaile izan zen (02.52,163).

Lasarteoriatarra ez zen atzean geratu Talex M4 berriarekin. Pixkanaka joan zen entrenamendu eta bi lasterketetan denbora murrizten eta probako bere markarik onena ondu zuen bi segundotan (03.04,627).

Manso pozarren agertu da Urrakiko emaitzarekin: "Oso ondo joan zen proba eta pozarren nago Urrakiko denbora onena ondu dugulako".

Gauzak horrela, aipatu moduan, bi podiumetara igo zen herritarra; 9. kategorian garaile izan zen eta sailkapen orokorreko zilarrezko postuan izan zen.



Aitor Manso, ezkerrean, podiumeko bigarren mailan. A. MANSO

Euskadiko txapelketa
- **Aiara igoera** 3º/1º.
- **Gorla igoera** 4º/1º
- **Opakua Igoera** 2º/1º
- **Dima igoera** 2º/1º
- **Jaizkibel igoera** 2º/1º
- **Urraki igoera** 2º/1º

* Sailk. orokorra/9. kategoria

Euskadiko txapeldun

Lasarte-Oriako gidariak izan duen erregularkasunarengatik eta Joseba Iraolak hainbat probetan parte hatu ez izanagatik Mendi igoeren Euskadiko txapelketako irabazlea bai eserleku bakarreko ibilgailuen bai 9. kategorian ere (Ikus koadroa).

"Ondo joan da denboraldia eta dagoeneko laugarren edo bosgarren aldia dut Euskadiko txapelketa eskuratzen dudala. Pozarren gaude horretatik", adierazi du Mansok.

Euskadiko denboraldia amaitu den arren, urtea bukatzeko Madrilgo mendi igoeren txapelketari dagozkion bi lasterketa geratzen zaizkio herritarrari eta horietan du burua. Bata hilaren 25ean izango da, Torrelagunan, eta azaroaren 14an, aldiz, El Vellon.



Javier Castro, eskuinean, Lasarte-Oriako Milian oroigarria jasotzen. TXINTXARRI

ATLETISMOA

Javier Castro, Lasarte-Oriako atletismoaren sustatzailea zendu da

Txintxarri

Lasarte-Oriako atletismoak galera handia izan du. Gure herrian urtetan kirol horretako sustatzaile izandako Javier Castro herritarra zendu zen hilaren 17an, 81 urterekin, gaixotasun luze baten ondorioz.

Urtetan atletismoko prestatzaile izan zen Castro. Landaberri ikastolan Santos Uriberekin batera aritu zen haurrei kirol horretako lehen urratsak erakusten. Michelineko atletismoko saileko arduradun izan zen 1995ean taldea desagertu zen arte. Atletismoan herrian errotzeko asmoarekin jarraitu nahian, Lasarte-Oria Kirol Elkartearekin (LOKE) bat egin zuen. Elkarte horretako zuzendaritzako kide, urtetan lehendakariorde izan zen, eta atletismo saileko lanekin uztartzen zuen Amaia Andres eta Oskar Goikoetxeari testigua eman zien arte.

Bizitzan eta kirol ibilbide horretan une gozoak zein gogorrak bizi izan zituen. Bere seme Enekoren heriotza, esate baterako. Horren omenez, urtetan Landaberri ikastolak Euskal Krosa antolatu zuen eta 2003 eta 2008 urte artean Lasarte-Oriako Milia ere jokatu zen. Castro sari banaketetan egon ohi zen.

Atletismoaz gain, bizikletan ibiltzea ere gustuko zuen herritarrak eta Michelin zein LOKEko zikloturista taldean aritu zen.

Lurrak goxo har dezala.

FUTBOLA

Elolak eta Hernandok, Ostadar SKTren makila



TXEMA VALLES

Hilaren 17an, Gorengo Mailako emakumeen eta gizonen arteko partiden artean Ostadar SKTk omenaldia egin zien Nagore Elola eta Iker Hernando jokalari ohiei. Urte luzez klub urdin-beltzean izan dira jokatzenen bi herritarrak eta hori dela eta, Ostadar SKTren makila jaso zuten taldeko ordezkarien partetik.

Ostadar SKTko arduradunek jakitera eman dutenez, oroigarri hori jasotzen duten hirugarren eta laugarren pertsona dira. Oparia elkarte urdin-beltzean bakarrik jokatu duten eta gizonezko taldean hogei urtez edo emakumezkoenean hamabost urtez igarotzen duten jokalariei banatzen zaie.

MENDIA

Frondiellas, neguko goi mailako igoera



LOTME

Lasarte-Oria Trail Mendi Elkarteko (LOTME) hamalau kidek Frondiellas (3.071 m.) gailurra egin zuten. Hilaren 17an eta 18an, Aragoiko Pirinioak izan ziren LOTMEko kideen helmuga; bertan goi mailako mendi ibilbidea egin zuten. Bi etapako bidea izan zen eta hotza, elurra zein izotza izan zuten lagun. Lehenean Respomuso aterpetxera iritsi ziren eta bigarrenean, aldiz, gailurra egin ostean, etxerako bidea hartu zuten. Taldearen hurrengo irteera, azaroan, Anboto mendira izango da. Elkartearen webgunean izena eman edo informazio gehiago eskuratu daiteke.

KOMIKIA



ZORION AGURRAK



Haitz
Zorionak!! Kontzertu, ospakizun, errugbi edo futbol partidu... zu beti prest eta irribarretsu. Hamabi muxu handi familia osoaren partetik!

IRAGARKI SAILKATUAK

Iragarkia jartzeko

943-37 14 48
publizitatea@ttakun.eus
www.txintxarri.eus/sailkatuak

- Osteguneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- TXINTXARRI-k ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

GUARDIAKO FARMAZIAK

LASARTE-ORIA EGUNEZ

OSTIRALA, 23	KNIESE
LARUNBATA, 24	DE MIGUEL
IGANDEA, 25	DE MIGUEL
ASTELEHENA, 26	DE MIGUEL
ASTEARTEA, 27	DE MIGUEL
ASTEAZKENA, 28	LASA
OSTEGUNA, 29	GIL

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
KNIESE: Kale Nagusia 71/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I.de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA EGUNERO
22:00etatik 09:00etara
CASTILLA-LARBURU farmazia
Urbieta kalea 7, / 94-55 29 41

URTE OSOKO GUARDIAK
Informazio gehiago *www.cofgipuzkoa.com* webgunean eskuragarri.

OHARRAK

'Euskarari puzka' udazkeneko kanpainako saskiak eskatzeko epea ireki dute

Errigora eragileak Lasarte-Orian duen boluntario taldeak jakinarazi du *Euskarari puzka* udazkeneko kanpainako kutxak eskatzeko epea zabalik dagoela eta azaroaren 12a (osteguna) izango dela eskaerak egiteko azken eguna. Herritar guztiak parte hartzera animatu dituzte.

ESKUTITZA

Gertatuko pasarte baten inguruan kexa

GURUTZE AGIRRETXE

77 urteko herritarra naiz. Idazki honen bidez, nire kexa eta haserrea adierazi nahi ditut.

Urriaren 12an, gaueko 23:30ean, nere etxeko leihotik ikusi nuen gertakaria. Momentu horretan 17-18 urte inguruko hamar bat gazte zeuden eserita eserleku edo banku batean, elkarrekin, hizketan, eta mugikorrei begira, lasaitasun osoan. Bat-batean, udaltzaingoaren hiru auto agertu ziren, bertatik sei agente jaitsi ziren. Gazteengana joan ziren eta banan-banan miatu zituzten. Operazioak ordubete iraun zuen. Atxikituta egon ziren, haien eskubideak urratuz, leiho birtual honetatik eszena ikusten nengoela.

Egonezina etortzen zitzaidan. Garai bateko Franco-ren diktadura egoerak burura etorriaz. Oso tristea eta onartezina da gaur egungo gizartean herriko gazteek horrelako jazarpen neurrigabea pairatzea.

Hori dela-eta, honako hau eskatzen eta salatzen dut: Udaltzaingoari eta alkateari, gazte hauen aurka erabilitako indar neurrigabeagatik azalpen publikoa ematea. Udaltzainen betebeharrak dira babesa eta segurtasuna ematea herritarrei.



ORDU ALDAKETA



Neguko ordutegia estreinatuko dugu igandean: **goizeko hiruretan, ordu biak izango dira.**

txintxarri WWW.TXINTXARRI.EUS

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre Etxeberria, Iñigo Gonzalez Sarobe, Maddi Noriega Zaldua eta Lierni Apaolaza Urdanpileta.

Publizitatea
Irati Zatarain Peña.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Lierni Rekondo, Jexux Artetxe, Aizpea Amas, Maitane Rebe eta Pili Ormazabal.

Banatzaileak
Nora Navarro, Aimar Hernandez, Gari Iraola, Axier Iraola, Eneko Sanchez, Udane Guisado eta Manex Azkonobieta.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

Publizitatea
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia
Geltoki kalea, 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

TXINTXARRI-k ez du bere gain hartzen kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

BABESLEA

LASARTE-ORIA UDALA

GIPUZKOA Foru Aldundia
Babestutako hedabidea

Osasun gida 2026

Fisioterapia

FISIOTERAPIA ETA OSTEOPATIA

Ibaiondo

· 30 urte zuen osasuna zaintzen.
· Esperientzia eta profesionaltasuna.
· Diagnostikoan adituak.

Ordua hartzeko: 943-37 03 06

Ola Kalea, 12 - behea, ezkerra
20160 Lasarte-Oria

PAGOA
Patricia Gonzalez Belmonte

· Osteopatia
· Masajea
· Drainatze linfatikoa

Tel.: 619 11 10 89
patriciagonzalez.pagoa@gmail.com
Pablo Mutiozabal 2, 1º 3. gela
LASARTE-ORIA

Estetika

MAiTE
ESTETIKA ARETOA

• Manikura edota pedikura
• Makillajea • Solariuma
• Aurpegi edota gorputz tratamentuak
• Mota ezberdinetako depilazioak
• Betileen tindatzea eta *lifting*-a...

zerbitzu mistoak

Uistin Kalea z/g • Lasarte-Oria
Tel. 943-37 08 45

Hortz klinikak

aldaz
hortz klinikak · clínicas dentales

LEHENENGO KONTSULTA ETA DIAGNOSTIKOA DOAN

DOAKO URGENTZIA ZERBITZUA GURE PAZIENTEENTZAT

ERREHABILITAZIOETAN ESPEZIALISTAK

ODONTOLOGIA ETIKOA





Ola kalea, 10. Lasarte-Oria
www.dentalaldaz.com
943 366 377

R.P.S. 128/24

PIZARRO
HORTZ KLINIKA DENTAL

ODONTOLOGIA OROKORRA | ODONTOLOGIA ESTETIKOA | KIRURGIA | ENDODONTZIA | PADI | ORTODONTZIA | PERIODONTZIA | ODONTOLOGIA PEDRIATIKOA | ZURIKETA | PROTESIA





IÑIGO DE LOIOLA, 9 BEHEA
LASARTE-ORIA TEL: 747 40 33 21

Fisioterapia

ARALAR
FISIOTERAPIA

FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIOA

MUSKULU-ESKELETOAREN EKOGRAFIA

INDIBA ACTIV

PILATES TALDE TXIKIETAN

ESKU TERAPIA

Aralar Plaza 5, behea, LASARTE-ORIA
(+34) 747 48 50 28
www.aralarfisioterapia.com

Osasun gida 2026

Zure osasuna esku onenetan, Lasarte-Orian!

Hurrengo gida AZAROAREN 27an.
Parte hartu nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan: 943-37 14 48 (106) / 646 82 44 66

EAGI-k Euskararen Maratoiko Kafe-Tertulian parte hartu du

EAGI
GIPUZKOAKO ERAIKUNTZA ESKOLA
FP CONSTRUCCIÓN GIPUZKOA
Goi maila eta erdi mailako zikloak ERAIKUNTZA

EAGIko irakasleak Euskararen Maratoian egindako Kafe-Tertulian izan dira, eta, txanda batean, euskararen egoerari buruz hitz egin dute eta etorkizunerako bideak bilatu dituzte.

Euskararen Maratoiaren baitan antolatutako Kafe-Tertulia espazioan, EAGIko irakasleak bertan izan dira. Mahai inguruan hezkuntza, euskara eta gizartea izan dituzte hizpide, gogoeta egiteko eta hausnarketak partekatzeko.

Beste eragile eta herritarrekin batera, egungo egoera aztertu eta erronka berriei aurre egiteko proposamenak egin dituzte. Hezkuntzak euskara bizirik mantentzeko duen garrantzia azpimarratu da, eta, aldi berean, hizkuntza ohiturak indartzeko bideak bilatu dira.

EAGIk eskerrak eman nahi die antolatzaileei eta parte hartu duten guztiei, euskararen aldeko elkarlana eta konpromisoa indartzen jarraitzeko.



XI. EUSKARAREN MARATOIA

Mila esker Lasarte-Oria

Eskerrik beroena ere

Illarreta Iturgintzari (furgona)

Aldika kutixiaki
(furgona isotermikoa)

Intza Elkarteari
(Baratxuri zopa, txokolatea eta markagailua)

Arrieskalletako Alex Ramosi
Kafe-Tertuliako kafea

Boluntario lanetan aritu zareten guztioi, noski!

LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

Ttakun Kultur Elkartea